

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZINEA

'La trinchera infinita', gaur

Gaur arratsaldeko 16:30etan, *La trinchera infinita* jarriko dute Biterin. 7 urtetik gorakoei zuzendutako pelikula da. ||

■ HERNANI ERABAKI

Gaurko postua, Zikuñagan

Bozkatze-fasean da Hernani Erabaki aurrekontu parte-hartzaileen prozesua. Proposamen guztiak aurkezteko, saio-irekiak egiten ari da Udala auzoz auzo; gaur, Zikuñagan. Auzoko Elkar-tearen lokalean egongo dira, 19:30etatik aurrera. Horrez gain, Hernani Erabakik gogorazazi nahi izan du, hilaren 24 arte egongo dela aukera bozka emateko. ||

■ HERNANI HERRI GUENA

Bihar jardunaldi antierpresiboa

Bihar arratsaldeko 18:30etan Urumea Herri Gunean, jardunaldi antierpresiboa antolatuta da; *Errepresioa herrialde Katalanetan: Prozes-etik haratago*. Izaskun Askapeneko ki-dea izango da hizlaria. Eta ostiralean, jardunaldi antierpresiboen bigarren zatia egingo da, arratsaldeko 18:00etan. ||

■ ASTIGARRAGA LITERATUR SOLASALDIA

'La peste' liburuari buruzko solasaldia

Gaur arratsaldeko 19:00etan, Albert Camus idazlearen *La Peste* liburuaren solasaldia egongo da. Jorge Carrerok zuzenduko du saioa eta gaztelaniaz izango da, liburutegian. ||

■ ERRIGORA KANPAINA

Saskiak eskatzeko epea irekita

Nafarroako hegoaldeko produktuz osatutako Errigora saskiak prest daude dagoeneko, eta aurtengo kanpainan, hiru saski prestatu dira. Eskaera egiteko epea asteazken arte izango da: www.errigora.eus webgunean egin behar da. ||

■ URUMEA GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Agin Laburuk, finalerako txartela lortu du

Atzo jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehenengo finalerdikoa. Agin Laburuk 501 puntu lortu zituen, beraz finalera sailkatu da zuzen-zuzenean.

EDERKI aritu ziren Hernaniko Iraulio Panttole Bertso Kabi-yako gazteak, hala nola, Agin Laburu astigartarra, Eñaut Martikorena hernaniarra eta Unai Gaztelumendi, añor-garra. Seikotea osatu zuten; Nerea Elustondok, Unai Mendizabalek eta Iñaki Apalategik.

Iraulio Panttoleko hiru bertsolarien puntuazioak

Agin Laburuk hartu zuen aurrea eta berak lortu zuen finalerako txartela, 501 punturekin. Unai Gaztelumendik ez zituen puntu nahikorik lortu finalera sailkatzeko, 447 izan ziren guztira, hain zuzen. Eta 5. postuari eutsi zion. Eñaut Martikorenak 434 punturekin seigarren postua lortu zuen. ||



Atzo egin zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen finalerdikoa.

■ ASTIGARRAGA SIADECO

Astigarragako azterketa demografikoaren emaitzak plazaratzeko, hitzaldia gaur

Astigarragako azterketa demografikoari buruzko hitzaldia gaur, Siadecoren eskutik.

GAUR arratsaldeko 18:30etan, Udaleko areto nagusian egingo da hitzaldia.

Azken urtetako hazkundea nolakoa izan den azaltzeaz gain, 2030 urtean gertatu daitekeenaren datu esanguratsuak emango dituzte, Siadeco ikerketa taldekoek.

2000 urtetik 2019ko urrira bitartean, Astigarragako biz-

tanleria %105,4a igo da. 2005etik gaur egun arte, etxebizitzaren kopurua %59,7a igo da, eta oso datu esanguratsuak direla adierazi du Siadecok.

Azken urteorako datu ikusgarriak emateaz gain, 2030 urtera begira, herriak izan dezakeen bilakaeraren berri emango du. ||



1916 urtean, Astigarraga.

BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

Zerbitzu partikularrak eta seguru etxekin
Beilatoskiak

Errasquetak
Lekuzalaztenak
Eskelak, korrek...

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

Zorionak Aner Miner Uzkudun!

8 urte

Zorionak Nur Etxabe Lopez!

4 urte



GAUR Gaur euriarekin jarraituko dugu, baina gauerako atertzera egingo du. Temperaturaren ez da aldaketarik egongo, izan ere, beroenak 11 gradu ingurukoak izango dira. Zaparradak botako ditu, baina gauean atertu egingo du. **Min.7° / Max.11°**



BIHAR Bihar ez dugu euriarik espero. Hogei egunetan euria egin ondoren, atsedaldi bat izango dugu. Zeruan hodeiak eta ostateak ikusiko ditugu eta hego-haizea ibiliko da. Temperatura maximoak apur bat igoko dira. **Min.6° / Max.13°**

(euskelmet)



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI UDALA

Energia berriztagarrien saioa datorren astelehenean

Datorren astelehenean, erengia berriztagarriak etxebizitzetan ezartzeko saioa egingo da lehen aldiz Hernanin. Saio hau Biterin izango da, arratsaldeko 18:00etan. Ostiral honetan amaitzen da izen emate epea.

HURRENGO astelehenean, aurrez aurreko ikastaro bat egingo da Biterin; «Etxebizitzetan energia berriztagarriak ezartzeko saio praktikoa» izango dena, hain zuzen.

Udalak adierazi du, energia berriztagarrien inguruko araudia aldatu berri dela, eta horren ondorioz, teknologia horiek etxebizitzetan eta etxebizitza-bloketan erabiltzea errazagoa dela.

Datorren asteleheneko saioan, aditu batek modu praktikoan azalduko du zein bal-



Datorren astelehenean izango da Energia Berriztagarriaren tailerra.

dintza bete behar diren energia berriztagarriak etxebizitzetan instalatzeko. Horrez gain, gure lurraldean jadanik martxan dauden zenbait instalazio, adibide gisa hartuta, horietan sortutako energia nola erabili daitekeen ere azalduko du.

Parte hartzeko
Ostiralean amaituko da izena emateko epea. Eta apuntatzeko hainbat modu daude; helbide elektronikora idatziz (oihane@izadi21.eus) edo deituz (686 4277 565); astelehenetik ostiralera, goizeko 8:00etatik, arratsaldeko 16:00etara. ||

HERNANI BIZILAGUNAK



Jende mordoak bildu zen atzo Bizilagunak ekimenean.

Atzo bazkari baten bueltan, ederki pasa zuten

Igandea famili artean eta lagun artean pasa zuten askok, eta kultura ezberdinetako jakiak dastatzen. Egurdiko 13:30ak aldera hasi zen ekimena, hasierako harrerarekin, bertsolariarekin, eta parte hartzaile guztien argazkiarekin. Horrez gain, arratsalderako ekintza gehiago antolatu zituzten AMHERrekoek, eta giro paregabea sortu zen Gaztetxean. ||

ASTIGARRAGA LIBURU AURKEZPENA

'No os importe matar' ren aurkezpena

Ostegunean, arratsaldeko 19:00etan, *No os importe matar* liburua aurkeztuko du Sabino Cuadra Lasartek, Kultur etxean. San Fermin-etako peñen txostenak eta duela gutxi deskalkifikatutako agiriak erabili dira liburu honetan. ||

HERNANI TXISTULARIAK



Atzo eguerdian Hernaniko txistulariak, plazako arkupean.

Atzoko eguna girotu zuten txistulariek

Atzo eguerdian, Hernaniko Txistulariek errepertorioko ohiko doinuak nahastu zituzten hainbat euskal abestiekin. Egurdiko 12:30etan hasi ziren eta abesti mordoak entzuteko aukera eskaini zieten herritarrei. Peru aldeko doinu herrikoia eta ezagunak ere hautatu zituzten atzoko egun euritsua xamurtzeko. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Konstantea eta fedegabetasuna

Harluxet hiztegiak "maiztasun berberaz errepikatzen dena edo irauten duena" definitzen du konstantea. Eta hauteskudentan, Hernanin nahiz beste zenbait lekuetan, abstentzioaren datuek konstante adierazkor bat erakusten dute. Errenta gutxien dituzten auzoetan abstentzioa handiagoa da, errenta gehien dituzten auzoekin konparatuz. Hernanin, azken hauteskudentan, pertsona bakoitzeko bataz besteko errenta txikiena duen hauteskunde-atal 8an (Akarregi, Martindegi, Osiñaga, Zikuñaga) abstentzioa

%41,17koa izan da, herriko handiena, eta berriz herriko abstentzio txikiena, %27,59koa, herriko errenta handiena duen atal 15ean (Aristizabal, Iturregi, Marieluts). Aldea 13,6 puntukoa da, esanguratsua. Hauteskundeak joan, hauteskundeak etorri, konstantea errepikatzeak fedegabetasuna adierazten duela pentsatzen dut, hain zuzen, eta arrazoi guztiz, gizarte bidegabe hau aldatzeko, egungo sistema sozial, ekonomiko eta politikan, gutxien dutenen fedegabetasuna.

Josu Arrieta Iraola

IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko.
Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)